

Intxaurrondo

Extremadurako enbaxada

Intxaurrondo Berriko Zarategi kalean Extremadurako Zentroa dago. Bere helburuak herrialde horretako enbaxadaren bilgune izatea eta hango folklorea bultzatzea dira, besteak beste.

Extremadurako Zentroa 1976an sortu zen. Hainbat lagunei Extremaduran jaio baina Gipuzkoan bizi zirenak elkarte baten inguruan biltzea bururatu zitzaizen. Santik eta Franciscok, kultur zentro honetako arduradunek, adierazi digutenez, *“proposamena oso gozoa zen. Lehen egoitza Karkizano kalean zabaldu genuen 1977an eta duela zortzi urte, 1992an, Intxaurrondora etorri ginen”*.

Extremadurako lehendabiziko etxea izan zen hauxe Gipuzkoan. Ondoren, beste batzuk sortu ziren: *“gaur egun Gipuzkoan zazpi edo zortzi etxe daude. Kontuan hartu behar da Extremaduran jaiotako 30.000 lagun bizi garela herrialde honetan”*, dio Franciscok.

De Paularen lagunak

Zentroaren beste helburuetako bat Extremadurako kultura zabaltzea da. Ildo honetatik, duela hiru bat aste Gipuzkoako Erregio Etxeen jaialdian parte hartu zuten, Konstituzio plazan. Santik dioenez, *“sekulako jai polita izan zen: bazkari herrikoa, sariak, jokuak, dantzak...”*.

Futbola ere gertutik jarraitzen dute. Extremadurako talde bat Donostiara datorrenean, zentroko lagunak Anoetara joan ohi dira. Horrez gain, talde horretako presidentea beraiekin bazkaltzera gonbidatzen dute. Franciscok esan digunez, gehienak meridazaleak diren arren, De Paularekin, urte luzez Extremaduran bizi izandako Realeko jokalariekin oso harreman estua dute.



Extremadurako Zentroa herrialde hartan jaiotako enbaxadaren bilgunea da. Hala ere, atek edonork dituela zabalik adierazi dute arduradunek.

“Omenaldi bat egin nahi diogu”, azaldu digute zentroko arduradunek.

Extremadurako Zentroko

lagunak pozik daude Donostian. Hasieran jendea harritu zen arren, oso ondo hartu dituztela diote. *“Zentroko*

gehienez Extremaduran jaiotakoak gara, baina atek guztiei irekita ditugu: euskaldunei, galiziarrei...”

“Kaldero Jaun jaiak”

Hilaren 29an, osteguna, “Kaldero Jaun Jaiak” hasiko dira. Igandera bitartean jai hotsak entzun ahal izango dira Hego Intxaurrondon. “Kaldero Jaun” panpina batetik bestera ibiliko da jai giroa nonnahi zabalduz. Besteak beste, Oktabiotarrak, Bixigarri eta Sagastitxulo koadrilek, Intxaurrondo Berriko emakume taldeak, Intxaurdi kirol taldeak eta Auzo elkarteak hartu dute parte jaion antolaketan. Gogoan izan datorren ostegunean herri jokoak egongo direla Sagastieder pasealekuan, arratsaldeko 18:00etan. Ondoren, 19:30etan Hortzmuga antzerki taldeak “koloreak” antzezlana jokatuko du.

